

B

BARREN

Karakate, markak hausten

TOKIKOM





Ermuaranbide 1, - Elgoibar - Tel.: 943 740 490



JOSTUNEN EGUNEKO MENU BEREZIA

Gula-entsalada

Perretxiko eta baratxuri fresko hostorea

Kalabazin betea saltsa berdean

Otarraixka bilkari frijitua barazkitxoekin

Zapoa edo

Okela-masaila ardo beltzetan

Krema hostorea

Urteko ardo beltza

Klareteak

Ardo gorriak

33 €

ASTELEHEN, ASTEARTE, ASTEAZKEN ETA
OSTEGUNETAN, 16:30ETIK 20:00ETARA

- Txokolatea txurroekin edo opilekin 2,80 €
- Taloa baconarekin edo txorizoarekin.
Taloa txokolatearekin.
Taloa esne katilu handiarekin.
4 € (Enkarguz)

OSTEGUN, OSTIRAL ETA LARUNBATETAN
19:30etik 21:30era

- Ardo ondua + pintxoak 2,25 €

Asteburuetan

- Txerri ukondoa hornigaiarekin
+ Garagardoa 12,00 €
- Txahal-txuleta hornigaiarekin
+ Garagardoa 14,00 €



Gosariak - Menu bereziak - Enpresa menuak - Bataioak eta jaunartzeak - Familia bazkariak

Eska itzazu menuak



PAULANER TXARRIDUNA

Nola atera EGA (azterketarik egin gabe)

Orain zazpi bat urte, zeresan handia eman zuen Kepa Larrea euskara-irakaslearen *Nola atera EGA (euskararik jakin gabe)* liburuak. Kepak zioenez, titulua izateak ez du ziurtatzen euskaraz dakigunik. Azken batean, titulua ateratzeko nahikoa da, haren ustez, azterketako ariketak ondo egiteko teknika batzuk erabiltzen jakitea.

Orain gutxi, berriz, Blanca Urgell Kultura sailburuaren hitzak izan dira hizpidea sortu dutenak. Gobernuaren asmo baten berri eman digu kontseilariak: D ereduan ikasi dutenek, azterketarik egin gabe, euskarako titulua izango dute. Neurri horren bidez, ikasle batek eskola-ibilbidea euskaraz egin badu, EGA edo baliokidea lortuko du, azterketarik egin beharrik gabe. Eusko Jaurlaritzak 2012tik aurrera jarriko du abian prozesu hori, eta bi homologazio maila aurreikusten dituzte: DBH bukatzen dutenentzako bat, eta Unibertsitatea bukatzen dutenentzako beste bat.

Alde batetik, bidezkoa ematen du ikasketa guztiak euskaraz egin dituenari EGAREN pareko maila aitortzea. Baina, bestetik, esperientziaz dakigu irakasleok D ereduan ikasteak ez duela ziurtatzen euskara maila hori lortzen denik. Euskaltegietan susmoa piztu zaigu neurri horrekin ez ote duten, krisi-garai honetan, dirua aurreztu beste helbururik: ikasle gutxiagok joan beharko dute

euskaltegietara eta gutxiago gastatuko da azterketetan.

Zalantzak zalantza, ni konforme nengoke baliabide gutxiago erabiltzearekin azterketa, akreditazio eta abarretan, baldin eta, beste irakasle batek dioen moduan, denbora eta energia horren zati bat hizkuntza hobeto nola ikasi eta ikasi eragin pentsatzen eta probatzen emango bagenu.



Jose Luis Azpillaga

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetari: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Esperientziaz dakigu irakasleok D ereduan ikasteak ez duela ziurtatzen euskara maila hori [EGAREN parekoa] lortzen denik”



**Ni ere banaiz
BARREN!**

Zergatik babesten duzu BARREN?

JAZINTO ALTZIBAR

*“Herriko gorabeherak;
kalean egiten diren obrak... eta
antzerakoen berri ematen didalako,
eta euskaraz gainera. BARREN
buzoitik jasotzeko desiratzen
egoten naiz barixakuero”.*



Oier Ariznabarretak irabazi du Karakateko igoera mutiletan, eta Maite Maiorak errekorra ezarri du emakumezkoetan

60 lagunek hartu dute parte, iaz baino bi gehiagok



Oier Ariznabarreta durangarrak estreinako aldiz hartu zuen parte zapatuan Karakateko igoeran, eta bidea ezagutu ez arren, bera izan zen helmugaratzen lehenengoa, 30:11 denborarekin. Emakumezkoetan, berriz, Maite Maiora mendarorak irabazi zuen, eta errekor berria ezarri zuen gainera, 35:43 denborarekin. Nerea Amilibia aiarraren denbora bost segundotan hobetu zuen Maiorak. Guztira, 60 lagunek hartu dute parte aurtengo edizioan; inoiz izan den partehartzerik handiena izan da, eta Karakateko gailurrean ere jende asko batu zen korrikalariei azken metroetan animoak emateko. Iñigo Lariz izan zen lehenengo elgoibartarra, Haritz Arrietak jaso zuen aurpegi onenaren saria, eta Jose Mari Alberdi azkoitiarrari sari berezia eman zioten Morkaikoko kideek, 79 urterekin Karakateko igoeran parte hartzeko egiten duen ahalegina eskertzeko. Argazki gehiago eta bideoa ikusteko: www.elgoibarren.net



Oier Ariznabarretak estreinako aldiz hartu du parte eta garaipena lortu du.

Maite Maiorak bost segundotan hobetu du Nerea Amilibiaren errekorra.



Iñigo Lariz izan zen lehen elgoibartarra. Sailkapen nagusian hirugarren egin zuen.



Sailkapena

1 Oier Ariznabarreta (Durango)	30:11
2 Josu Arregi (Azpeitia)	30:25
3 Iñigo Lariz (Elgoibar)	31:00
4 Igon Manzisidor (Deba)	31:16
5 Iñigo Lazkano (Mendaro)	31:40
6 Jorge Gonzalez (Elgoibar)	31:49
7 Joxe Luis Beraza (Huarte Arakil)	32:57
8 Klemente Jesus Bravo (Lazkao)	33:04
9 Jon Revert (Elgoibar)	33:27
10 Jose Mari Fernandez (Elgoibar)	33:38
11 Manolo Ramos (Elgoibar)	34:03
12 Julen Garitano (Antzuola)	34:22
13 Igor Urionabarrenetxea (Aulesti)	34:27
14 Gorka Olaskoaga (Getaria)	34:32
15 Arkaitz Astiazaran (Lastur)	34:35
16 Zigor Alberdi (Soraluze)	34:37
17 Oscar Oncala (Bergara)	34:57
18 Gotzon Zulaika (Mendaro)	35:01
19 Ibon Serrano (Elgoibar)	35:31
20 Joseba Gonzalez (Bilbo)	35:35
21 Aitor Arana (Aramaio)	35:35
22 Denis Aretxabaleta (Markina)	35:37
23 Maite Maiora (Mendaro)	35:43
24 Iñigo Ortuoste (Elgoibar)	36:23
25 Nerea Amilibia (Aia)	36:56
26 Joseba Fernandez (Bilbo)	36:58
27 Joseba Ortega (Azpeitia)	37:12
28 Igancio Diaz (Mendaro)	37:15
29 Haritz Arrieta (Elgoibar)	37:17
30 Jokin Urresti (Markina)	35:25
31 Ibon Etxabe (Zarautz)	37:30
32 Josu Tapia (Deba)	37:53
33 Alberto Seijas (Elgoibar)	37:58
34 Mikel Hernandez (Soraluze)	38:01
35 Arkaitz Irureta (Elgoibar)	38:09
36 Andoni Calles (Soraluze)	38:17
37 Edu Uribe (Elgoibar)	38:24
38 Antxon Arizmendi (Elgoibar)	38:24
39 Gorka Tornos (Soraluze)	38:32
40 Jose Antonio Agote (Elgoibar)	38:44
41 Ibon Villanueva (Elgoibar)	38:58
42 Javier Fernandez (Elgoibar)	39:04
43 Iñigo Olañeta (Bergara)	39:07
44 Jon Agirrebeña (Elgoibar)	39:11
45 Aitor Fernandez (Bilbo)	40:14
46 Roberto Garcia (Elgoibar)	40:15
47 Sabin Zenarruzabeitia (Aulesti)	40:22
48 Xabier Lasa (Andoain)	40:36
49 Joseba Illarramendi (Zestoa)	41:57
50 Ignacio Perez (Elgoibar)	42:05
51 Luis Ariznabarreta (Soraluze)	43:26
52 Gorka Arriaga (Soraluze)	43:28
53 Iñaki Laskurain (Elgoibar)	45:08
54 Mikel Gabilondo (Elgoibar)	46:32
55 Ion Zabaleta (Andoain)	48:36
56 Gorka Etxezarreta (Antzuola)	53:08
57 Jose Mari Elola (Donostia)	55:18
58 Patxi Alberdi (Azpeitia)	55:51
59 Jose Mari Alberdi (Azkoitia)	55:511
60 Igor Rey (Mendaro) (erretiratu egin zen, min hartuta)	

*Ezkerrean
Ignacio
Perez.
Eskuman,
Jose
Antonio
Agote.*



*Ezkerrean
Ignacio
Diaz eta
Haritz
Arrieta.
Eskuman,
Iñigo
Ortuoste.*



*Ezkerrean
Gotzon
Zulaika.
Eskuman,
Jorge
Gonzalez.*



*Ezkerrean,
Mikel
Gabilondo.
Eskuman,
Jose Mari
Fernandez
'Suso'.*



ELINA HYHYNEN (Finlandia)

“Etxean saiatzen gara hizkuntzei lekua egiten, sinistuta gaudelako eleaniztasuna ona dela”



Finlandiarra da izatez, baina Mendaron bizi da gaur egun Elina Hyhynen, senarra eta bi seme-alabekin. Herri txikian bizitzeak “alde onak eta txarrak” dituela dio, baina “eroso” bizi dela aitortu du: “Euskal Herrian sekula ez naiz kanpotarra sentitu”. Suomitar Euskal Herria-Finlandia elkarteko kidea da (www.suomitar.org), eta gustuko ditu euskal kultura eta tradizioa. Gurera iritsi zenean, euskaldunen “eskuzabaltasunak” eta familiari eta koadrilari zaien errespetuak harritu zuten gehien, baina Finlandia eta Euskal Herria alderatzen hasita, gizarte politketan igarri du alderik handiena.

Zelakoak gara euskaldunak?

Esango nuke nahikoa itxiak zaretela. Kosta zitzaidan koadriletan sartzea. Hemen, ume-umetan sortzen dira koadrilak, eta normala da beste norbait taldean onartzea kostatzea. Nesketan nabarmenagoa da oraindik, baina hori ez da hemengo kontua bakarrik. Mutilen aldean, zailak gara gu.

Zelakoa da zure sorteria?

30.000 biztanleko herri batekoa naiz, Helsinkitik 40 bat kilometrora dagoen herri txiki batekoa. Nire senarra Zumaikoa da, eta nik beti esaten dut biztanletan handiagoa izan arren, nire herria Zumaiaiko Oikia auzoa bezalakoa dela. Auzo izaera handia du, bai.

Erabaki gogorra izan zen hona etortzea?

Bai. Amarekin lotura handia izan dut beti, eta kosta zitzaidan, baina nire bidea egiten hasteko ordua iritsi zitzaidan. “Hegaldiak joan-etorrikoak dira, eta zoaz lasai”, esan zidan amak. Mutilak esana zidan, gainera, bera ez zela Finlandiara ohitzen, eta hona etorri ginen. Ez dut inor mindu nahi, baina uste dut emakumeak ekintzaileagoak eta ausartagoak garela.

Zumaiara etorri, eta haurdun gelditu bezain laster berri Finlandiara. Zergatik, ordea?

Ikargarrizko beldurra nion erditzeari. Ez nuen hizkuntza menperatzen, eta beldur nintzen. Inguruan baneukan jendea, jakina, baina bat-batean herritik urrun sentitu nintzen; ama behar nuen ondoan. Umeak bederatzita bat hilabete egin arte egon ginen han. Handik Murrikura etorri ginen, eta Mendarora gero.

Finlandia herrialde hotza dela badakigu, baina hortik aurrera ezer gutxi.

Hotza, baina lehorra da Finlandia. Hemengo aldean etxeagoak gara han. Finlandian, udan ez bada, nekez ikusten dira kalean lagun koadrilak. Bataioak eta ezkontzak ere etxeko jardinean egiten dira han. Bada beste kontu bat atentzioa deitu izan didana. Zuei nongoak zareten galdetu, eta “Mendarokoak” erantzungo dizue, edo asko jota, “gipuzkoarrak”. Guk, berriz, “finlandiarrak” esaten dugu.

Gizarte politikan eredutzat ditugu Iparraldeko herrialdeak. Zertan zarete eredu?

Dezenteko aldea dago. Finlandian, ume bat izaten duenak lehenengo hamazazpi urtean diru laguntza ja-



sotzen du. Era berean, umeak haurtzaindegira eraman ordez, lana laga eta zerorrek zaintzea erabakitzen baduzu, diru laguntza bat jasotzen duzu. Bestalde, langabezia kobratzeko ez daukazu aurrez kotizatura eduki beharrik, eta muturreko egoeran bizi bazara, berriz, gizarte segurantzak etxea eta jatekoa ordaintzen dizkizu. Finlandian ez dago kale gorrian gelditzerik, ez behintzat norberak aukeratura ez bada. Hemen oso aurreratuak zaudete gauza askotan, baina iruditzen zait gizarte politikak bigarren maila batean lagatzen dituzuela. Pausoak ematen dira, baina egoera zailtzen denean erraz egiten da atzera berriz ere.

Bi umeren ama zara. Zer erraztasun dituzue amek Finlandian?

Ez daukat gogoan amatasun baimena zenbatekoa den, baina umea izatean saski handi bat ematen dizute umeak lehenengo 9-12 hilabeteetan beharko duen erropa eta gainerako guztiekin. Era berean, umea zaintzen gelditzen dena ama izan nahiz aita izan, diru laguntza jasotzen du. Hori bai, lanera aurretik itzultzea erabakitzen duten emakumeen kasuan, nik uste dut laguntzak hemen baino handiagoak direla. Enpresa gehienetan ez dute aparteko arazorik jartzen baimemak luzatzeko, eta lana etxetik egiteko aukera ere askok ematen dute.

Ama gaztea zara, eta oso gazte irten zinen gurasoen etxetik.

Bai, lotuta daude bi gauzak. Nik 22 urterekin izan nuen semea, eta ospitalera erditzera joan nintzenean neu nintzen zaharrenetakoa. Normala da 17-19 urteko neska bat ama izatea, han azkarrago independizatzeko. Apartamentu gehienak alokairu publikokoak dira, eta ditugun laguntzekin, askoz errazagoa da gurasoen etxea lagatzea. Hemen pentsaezina da hori. Batetik, erosten ez dena norberarena ez den uste hori oso zabaldua dagoelako, eta bestetik, hemen alokairu gehienak pribatuak direlako. Soka lepoan duzuela bizi zare hemen.

Zerk harritu zintuen hona etorri zintenean?

Hemen ezin nuela inorekin ingelesez hitz egin. Eskolan ikasitako lau esaldi baino ez zekitela esaten zidaten guztiek, eta lotsa galitzen zutenean hasten ziren ingelesez, goizaldera. Harrigarria egin zitzaidan. Finlandian, suediera eta finlandiera dira hizkuntza ofizialak, baina gurea oso herrialde txikia denez, eta gurearekin inora ez goazenez, ingelesari garrantzia handia ematen zaio. Ikasketei dagokionean, Finlandia punta-puntako herrialdea da. Gobernuak beka asko eskaintzen ditu ikasketetarako, eta unibertsitate arte, motxila ez beste guztia doan dute ikasleek. Ikasketetan, hori bai, uste dut hemen baino gehiago eskatzen dela. Bada beste kontu bat ere: hona iritsi nintzenean iruditu zitzaidan kalean denak nitue-

la oso lagun, baina gero inork ez ninduen bere etxera gonbidatzen. Finlandian, pertsona bat etxera gonbidatzen ez baduzu estimutan ez duzulako da, eta horregatik, hasieran denek baztertzen nindutela sinetsita egon nintzen.

Gauza onak ere izango dira hemen...

Osasungintzan gehiago zarete. Finlandian oso sendagile onak ditugu, baina osasungintza garestia da. Kontsulta kopuru jakin bat ordaindu egin behar izaten dira. Era berean, ospitaleratzeak ere ordaindu egin behar izaten dira, eta baita larrialdi zerbitzuak ere. Lehen ez genituen larrialdi zerbitzuak ordaintzen, baina herritar askok ez zituzten zentzuz erabiltzen, eta orain ordaindu egin behar dira. Elikadura ere hobea da hemen, eta familiari eta jatorduei ematen zaien garrantziak izan dezake zerikusirik horretan. Finlandian galdu da hori. Familiek ez dute elkarrekin jaten, eta janari azkarra asko zabaldu da.

Ikaragarri ondo moldatzen zara gaztelaniaz. Noizko euskaraz?

Gaztelania ikasi nuen lehenengo, hona iritsi nintzenean nire ingurukoek gaztelaniaz hitz egiten zutelako, baina iritsi banintz Mendarora, beharbada, euskaraz ariko ginateteke orain. Euskara ikasten dihardut orain, eta badakit Alfontso irakaslea bere onetik iritenda

erabiliko dudala sarri, baina egiten dut ahalegina. Nire seme-alabek ikastolan ikasten dute, eta nik ez dut traba izan nahi haientzako. Era berean, errespetu kontua ere bada. Ezin dut ulertu kanpotik etorri eta euren arauekin bizi nahi izate hutsagatik bertakora egokitzen ez direnen jarrera. Jaendik etorri eta 40 urtean euskara ikasi ez duenaren kasuan, nire ustez, bada huts egiten duen zer bait. Iruditzen zait gutxien-gutxienez saiatu egin behar dela.

Bizitzeko leku ona da hau?

Ikaragarri ona. Kulturalki oso aberatsa da, eta tradizioaren ikus-puntutik, oso polita. Historikoki, Euskal Herriak eta Finlandiak badute gauza bat komunean: herrialde txikia izanda, gogor borrokatu behar izan dugu beti, nola norbaiten kontra hala zerbaiten alde, eta nahi nuke nire umeek hori barneratzea: gogor egin behar dela lan, zerbait izango bada. Nire seme-alabek Mendaron bizi diren finlandiarrak direla esaten dute, eta ona da hori. Semeak euskara, gaztelania, finlandiera eta ingelesa hitz egiten ditu, eta etxean saiatzen gara lau hizkuntzei lekua egiten, sinistuta gaudelako eleaniztasuna ona dela oso.

**“Iruditzen zait
gizarte politikak
bigarren mailan
lagatzen dituzuela”**



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

G-O-I-E-N-A letraz letra

A arrasto aitzindaria, akuilua, asma-tzea, asmo antolatua, arnasgunea, argigarrria

B berritzailea, bihotza bezainbat bu-rua, bisagra, blogaria, bilgunea, burugogo-rra, baikorra

D desberdina, diseinuan dotorea, di-namikoa,

E egin eta eragin, euskaratik eta eus-karaz, euskaldunontzat, elkarlana, erfe-rentea, eredia, egoskorra, erakargarria, esperantza, etorkizuna

F foroa, faroa, fokoa, festa,

G guztiona, gurea, guztiontzat, gero-koentzat, gunea, gaztetasunaren grina, glokala

H harremanetan hurbila, hegemoni-koa, harrotasuna,

I irmoa, irekia, informazio iturria, inber-tsoia, ilusioa, izatea, izaera indartsua, iraunkortasuna,

J jakintza, jazotakoa jaso, jostun jardun-ean, jarioa, jolasa, jarraidura

K kolaborazioa, koloretsua, konpeten-tzia, koordinazioa, kalekoa,

L lorpena, loraldian, lotura,
M miresgarria, milurtekoan moder-noa, mundurakoa, merezitakoa, merituz-koa,

N nortasuna, neutraltasun neurtua, norabidea, nerabea, nirea

O opari oparora, orijinala, ongarria, on-dorengoentzako ortzimuga,

P pozgarria, pozkidea, pentsu pentsa-tua, proiektu profesionala, prozesua, par-tehartzaila, pixkanaka,

S sustatzailea, sentimentua, sentimen-tu sortzailea, sarea, soroa, saria, serioa,

T teknologia, topagunea, tokikoa, ten-tsoia

U utopiaren uzta, uanean unekoa,

Z zabala, zirikatzailea, zailtasun zula-tzailea, zurekin, zuretzako, zuhurra,

Utopiaren zati bat gerturatu duzuela-ko, urte askoan Goienako lagunei eta es-kerrik asko zaretenak zarelako

**Jonas Mendizabal eta Karmen Irizar,
Euskara Elkartearen Topagunea**

OHARRA

Abenduan bi ale kaleratuko ditugu: bata, hilaren 3an, eta, bes-tea, 21ean.

Abenduaren 3ko alean zerbait argitaratu nahi izanez gero, abenduaren 1erako ekarri behar duzue **BARRE**nera (12:00etarako), eta abenduaren 21eko alean zerbait argitaratu nahi izanez gero, berriz, abenduaren 15erako ekarri behar da (12:00etarako).

20€ AZAROAREN 27AN, EGUERDIAN, ZATOZ PLAZA HAUNDIRAL
an **LOR DEZAKEZU TXARTELA**

**%10eko
DESKONTUA**

FEDEROPTICOS
IKUS
CASA
ASTIGARRAGA
GYEXPOST
LETE
Eropea Deude

Opari bat eskuratuko duzu

Elgoibarko Santo EKT

ESKUBALOI TALDEA

LAGUNTZAILE 10-11

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 744 112
 Faxe: ☎ 943 743 704
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Publizitatea: ☎ 943 743 704
 E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi | KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia | HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia | PUBLIZITATEA Eneritz Lazkano, Izaro Etxegibel
 MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz | MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue | KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo.
 INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Arkaitz Irureta

Aurreko astean Morkaikoko gogoeta egunean egon nitzuan. Interes gaien aukeraketa bat egin genian, eta ingurumena askoren kezka iturri zela agertu zuan. Hori lantzeko taldera, baiña, bi besterik ez giñuazten geraturatu.

Talde lana hasteko taldeko moderatzaillak zera galdetu zidan: zer arrazogaittik etorri haiz talde honetara?

Nere erantzuna: banekialako jende gutxi etorriko giñala.

Berdin ikusten diat Okil Beltzen lana. Jende askoren elkartasuna jasozten diagu. Askok esaten juek, demaseko lana egiten ari zerate, bateron batek gelditu bihar dieuz hankak horieri!

“Lerun Txiki bota diate, baiña mozorroa kendu eta agerian geratu duk Udala”

Harrittuta geratu nauk Lerun Txikiko gaixa ze barneratuta geratu dan Elgoibarren, eta kriston poza eman zidak. Lerun Txiki bota diate, baiña mozorroa kendu eta agerian geratu duk Udala. Itxurakerien gaiñetik merkadilloko esku bera agertu duk, autoritarismoarena. Herriaren zerbitzura egon beharrean herria beren zerbitzura jarri nahi diatenena, eta bide batez, laguntxoek negozioa egin!

Promotorak aberasteko 1.000 etxe berri justifikatzeko erabili ziaten gezurra agerian utzi genian: Elgoibarren biztanleriaren billakaerarekin datuak faltsutu zizkiaten, eta guri eskerrak, rektifikatu behar izan ziaten. Hazkunde gezurrak albo batera laga, eta 1.000 etxe berri populazioa ez jeisteko zirela esan behar izan ziaten. Eta hori sinistuko dabanik...

Lerun Txikirekin ere ez ote duk gauza bera pasako, Justo?



Justo Arriola

Lerun Txiki auzixa astakerixia izan dok hasieratik, ibai-baso-lur sail galanta industriarako bideratu juenetik. Maguak dittuk makilla miragarrixakin ikutu eta tink! Metro koadroaren prezia biderkatzen. Zer lurzoru birkalifikatuko dan alde aurretik jakitzia (eta erostia) dok amarrua hemen. Zeiñek jaukan informazio hori susmorik bai, Arkaitz? Gero, adrelluaren monokultiboa zabaldu. Hain modernua da grisa. Ez utzi arbola eta lorarik lorontzitik kanpora, eskerrik asko.

Zorionez, txori batzuen lanari esker globua zulatu egin jakue eta txikizua txikiagotu; ostera, baserrixa eraistia latza izan dok. Kupidarik gabe. Antzekua dok behatza gangrenatuta daukan gaixo bat erahiltzia. Eskerrak ez dabizazela medikuntzan, *recios*. Baiña hain garbixa badok gauzia zergaittik ibilli zittuazten gezurretan? Oñ zela frogatu leike Lerun Txiki ez zaguala erortzeko zorian?

“Lerun Txiki auzixa astakerixia izan dok hasieratik”

Udal-arkitektuak tonbola baten lortu jua titulua edo bere erabakixak ez jakan zerikusirik eraikiñaren egoeriarekin. Ba, 1.200 etxien plan berriaren zuzendarixa bera dok, bai, motel, Elgoibar XXI. mendera egokitzera behartuko gaittuna. Ingurumena? Alde egik hemendik txoro-usaiñekin, horretarako bajaukagu “Elgoibar Berdea”-ren makillajia. Espainiako Ingurumen Ministerioak Udalarari emandako saria sartzeko leku bat okurritu jatak.

Badakik Salontzo erreka zuhaitzak mozteko Iberdrolari emandako baimena nundik irten zuan? Bero, bero...



Elgoibarko Udala



Mendaroko Udala



Bankuak jo ditu Eric Cantona futbolari ohiak krisiaren errudun, eta sindikatuei irudimena falta zaiela gehitu du. “Sistema apurtzeko”, bankuetatik dirua ateratzera deitu ditu herritarrak.

Zer iruditzen zaizu Eric Cantonaren proposamena?



Isidoro Rico
66 urte, jubilatua

Proposamena bera zaila da betetzen, baina funtzionatuko luke. Gogoan daukat Alemanian Gobernuak etorkin guztiak kanporatzea proposatu zueneko. Etorkinek euren irabazi guztiak hartuta alde egingo zutela erantzun zuten, eta horri esker, Gobernuak atzera egin zuen.



Agurtzane Bastida
48 urte, garbitzailea

Bankuak eta politikariak dira errudunak. Dirua bankutik ateratze horrek ez dauka zentzurik, hala ere. Non gorde behar dugu dirua, baldosapean? Manifestazioak beharrezkoak dira, gainera. Kalera irtean ez bagara, dena libre dutela us-teko dute-eta politikariek.



Iñaki Intxausti
82 urte, jubilatua

Dirudunak dira krisiaren errudun, baina dirua bankutik ateratzea ez da irtenbidea. Hori bai, manifestazioek eta grebek ez dute ezertarako balio. Hori ere egia da. Irtenbide bat ematea zaila da, baina orain arteko formulak behintzat ez dute balio, gal-tzailea beti langilea delako.



Pako Iriondo
84 urte, jubilatua

Nik uste dut oraingo agintariek ez dutela lehengo maila ematen. Gero eta eskasagoak dira, eta horren ondorioak langileek pagatzen dituzte gero. Egia da, baina, manifestazioek eta grebek ez dutela ezertarako balio. Halakoetan, langileak galtzen du beti.

Jose Angel Zabala

MAHASTI

Urdaitegia eta ardaudegia

Merkatu plaza, 30, 33, 34 • 615 76 03 72



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

HAIR'S

ILEA PAINDEGIA

San Bartolome, 6 behea
Tel.: 943 53 12 79

ASTEARTEETAN JUBILATUEN EGUNA:

- Orraztu 8 €
- Garbitu, moztu eta orraztu 16 €





Hilerrira joateko bidea ez dago ondo seinaleztatuta: "Sigmako errotonda berria egin dutenetik, hilerrirako bidea ez dagoela ondo seinaleztatuta iruditzen zait. Aspaldi nengoen hilerrira joan gabe, eta Domusantu egunean beti bezala joan nintzen Olasora, errepidetik. Sigmako errotondara iritsi nintzenean, bi aukera nituen: Eibarrerantz jarraitu edo herri barrura sartu, errotonda erabilita. Bi horietako bat ere ez zen nik egin nahi nuena. Hilerrira joan nahi nuen. Aurrera segi eta Sigma auzoan buelta eman behar izan nuen. Gero konturatu nintzen hilerrira herri barrutik joan behar dela orain. Egia esan behar badut, Sigmako errotonda berri hori buruhauste handiak sortzen ari da".



Herriko gune asko oso ilun egoten dira gauzez: "Farolen argiztapena gero eta arinagoa dela iruditzen zaigu. Urasandin, esate baterako, ingurune batzuk oso ilun egoten dira gauzez. Bi eraikin handiren erdian geratzen da gure kalea, eta farolek ez dute argi nahikoa ematen. Gauzez benetan beldurra pasatu izan dut. Eskertuko genuke herriko gune ilunen azterketa egitea, eta argi gutxi dagoen lekuetan neurriak hartzea".



ESKERTZA

FELIPE ALONSO PACHON

2010eko azaroaren 12an, 72 urte zituela hil zen Durangon.

"Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan."



VII. URTEURRENA

LOREA ETXABE AZKUE

*Edur zuritan hazittako
lore gorrixa ziñan.
Urtu eraitten zendun
inguruko hotza,
eta bedarra hazi erain.*

*Ez dogu gehixago
zure berua igarriko,
baiña hementxe gerauko da
zure arnasan aztarnia,
botatako sustraixen gaiñian.*

Zure familia eta lagunak

2003ko azaroaren 26an hil zen, 30 urte zituela. VI. urteurreneko meza gaur, azaroaren 26, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokiari. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



Kontsumo iraunkorraren eta arduratsuaren estreinako feria antolatu dute biharko

Hileroko salmenta postuez gain, arropak, liburuak eta jostailuak ere salduko dira

Hileko azken zapatuko feriarekin bat egingo du bihar kontsumo iraunkorraren eta arduratsuaren feria. Hiru helburu nagusi izango ditu feriak: bigarren eskuko merkatuaren bitartez hondakinak gutxitzea, bertako produktuak sustatzea, eta, azkenik, herritarrak ohitura iraunkorragoen alde egiteko beharraz sensibilizatzea.

Norbanako, erakunde eta talde askoren parte hartzea edukiko du feriak: Udala, Debemen, Emaus, Biolur, Econat, Jaurizaritza, Gipuzkoako Diputazioa eta, herriko ikastetxeak. Guzti horien parte hartzerik gabe horrelako feria bat antolatzea “ezinezkoa” izango litzatekeela adierazi du Alfredo Etxeberria alkateak, eta guztiei eskerrik eman dizkie.

Mota askotako postuak

Hileko azken zapatuko ferietan egoten diren ohiko postuez gain, beste produktu batzuk erosteko aukera ere eskainiko dute. Emausek bigarren eskuko pro-



duktuen postu bat jarriko du, arropak batez ere, eta herriko ikastetxeek ere bigarren eskuko merkatu bat jarriko dute liburuak, jostailuak, eskola materialak eta beste hainbat gauza salgai jarri. Debegesak eskualdean abiarazi dituen hainbat ekin-tzari buruzko informazio postua jarriko du

eta Miskik Peruko artisautza. Bestalde, ostalariek bertako baserrietako produktuekin egindako menuak eskainiko dituzte. Txosna Lagun Taldeak kudeatuko du, eta txerria erreko dute bertan. Eguerdi aldean hasiko dira pintxoak banatzen.

‘Ekin’ gunean parte hartzeko epea urtarrilaren 17an amaituko da



‘Ekin’ ekintzailetasunerako gunean parte hartu nahi dutenek urtarrilaren 17a baino lehen aurkeztu behar dituzte proiektuak. Jardueren sorrera, berrikuntza eta ekintzailetasuna sustatzea da egitasmo honen helburua; azken batean, “udalerriko ongizatea hobetzea”. Egitasmoan parte hartzen duten guztiek izango dute Gabriel Krutzelaegi kalean zabaldu duten lokala erabiltzeko aukera.

PPren adierazpenak

Javi Nuñez PPko zinegotziak gogor kritikatu du Udalak legegaldi honetan langabeziaren inguruan izan duen jarrera. Nuñezek esandakoaren arabera, Elgoibarko langabezia %150 handitu da azken hiru urteotan, eta Udal Hauteskundeetarako hilabete gutxi batzuk falta direnean ekintzailetasunerako gunea bat zabaldu izana kritikatu du. Era berean, Udal Gobernuak osatzen duten EAJK eta EAK, eta PSEK ere hiru urteotan ez dutela Elgoibarko langabeziaren kontrako neurririk hartu gaineratu du.

Ekitaldia **Arnaldo Otegiren aldeko kanpaina**



Arnaldo askatu, politika askatu plataformak erretratu kanpaina bat jarri du martxan, Arnaldo Otegi babesa eskaintzeko. Euskal Herriko eta Nazioarteko hainbat lagunek atera dute erretratua dagoeneko, eta nahi duenak bihar izango du erretratua ateratzeko aukera Elgoibarren. Plataformako kideek Plaza Handian eta Kultur Etxe aurrean jarriko dituzte mahaiak, 12:00etatik 13:30era.

Berbia **'Elgoibar Berdea'**

Elgoibar Berdea egitasmoa saritu du Conama Fundazioak, herri txikien eta ertainen iraunkortasuna saritzeko antolatutako bigarren lehiaketan. 5.000 eta 30.000 biztanle artean dituzten herrien atalean lehen akzesita jaso du Elgoibarko Udalak. Aurkeztu ziren 135 proiektuen artean *Elgoibar Berdea* ekimenaren "helburuak, metodologia, ahalegina eta ekimenaren berritzaileari lotutako emaitzak" hartu ditu aintzat lehiaketako epaimahaiak.

Irudia **Sakelako telefonoak Misio Taldearentzat**

Elgoibarko Misio Taldeak sakelako telefonoak batuko ditu aurtengo kanpainen. Bartzelonako enpresa batek erosiko ditu sakelako telefono horiek, birziklatzeko, eta salmenta horietatik lortutako dirua misiolarietara emango diete. Momentuz hogei bat telefono bildu dituzte, eta herritarrei eskatu diete erabilitako telefonoak Merkatu Plazan daukaten dendara eramateko. Datorren astean abenduaren 2tik 4ra zabalduko dute dendak, 10:00etatik 13:00etara, eta abenduan zehar astero irekiko dute.



Nagore Laffageri buruzko dokumentala, indarkeriaren kontrako egunaren harira

Atzo izan zen emakumeengana-ko indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna, eta horren harira, hainbat ekitaldi antolatu ditu Berdintasun Sailak. Horien artean, *Nagore Laffage* dokumentala emango dute abenduaren 3an, Herriko Antzokian, 22:15ean. Helena Taberna zuzendari nafarrak eraman du pantaila handira Irungo gaztearen hilketa. Herriko ikastetxeetako ikasleek goizean, 10:00etan, izango dute dokumentala ikusteko aukera, eta erasoeri aurre egiteko informazio esku-orriak jasoko dituzte, gainera.

Jubilatuena asteko ekitaldiak martitzenean hasiko dira

Martitzenean hasiko dira jubilatuen asteko ekitaldiak. 18:00etan txokolate jana egingo dute jubilatuen egoitzan, eta eguaztenean gabonetako 30 otarra zozketatuko dituzte. Abenduaren 2an, berriz, 80 urtetik gorakoentzako eta urrezko ezteiak egin dituztenentzako bazkaria izango da. Abenduaren 5ean amaituko da jubilatuen astea, jubilatuei eskainitako meza bereziarekin. Ekitaldi horietan parte hartzeko, egoitzako bulegoan eman behar da izena.

Kirola eta parranda uztartzeko afaria

Kirola eta parranda uztartzeko afaria antolatu dute hainbat kirolarik abenduaren 11rako. Kirola gustuko duen edonork hartu dezake parte afari horretan. Interesatuak ondorengo telefonoetara deitu dezakete: 696 874 842 edo 653 702 750.

Leku Ona tabernari buruzko erakusketa Mendaron

Mendaroko Leku Ona tabernak hogei urte egin dituela-eta, bertan ateratako erretratuen erakusketa egin nahi dute jabeek. Hortaz, azken hogei urteotan Leku Onan ateratako argazkiak dituztenei bertara eramateko deia egin diete mendarotarrei.

Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, herri kirolak eta bertso afaria izango dituzte gaur Danobateko langileek

Andoni Egaña eta Fredi Paya bertsolariak arituko dira kantuan, Zubi-Ondo elkartean

A benduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzen da, eta egun horren harira, hainbat ekintza antolatu ditu Danobateko Euskara Batzordeak langileentzat, Emun lan mundua euskalduntzeko kooperatibarekin elkarlanean. Danobaten sartzeko baldintzetako bat da euskaraz jakitea, eta hamar bat urte dira euskararen erabilera eta ezagutza enpresa barruan bultzatzeko Euskara Plana martxan jarri zutenetik. Ordutik, urtero ospatzen dute euskararen eguna. Aurten, baina, ospakizunak aurreratu egin dituzte,



egutegiak abenduaren 3a zubi luze batekin lotzeko aukera ematen duelako, eta hala, gaur ospatuko dute eguna.

laz bezala, herri kirolekin hasiko dituzte ospakizunak. 17:30ean ikastolako frontoian elkartuko dira, eta han, pilotan, lokotx baztzen, sokatiran... jardungo dute langileek, elkarren arteko lehian. Herri kirolak amaitutakoan, 20:00ak aldera, poteoa hasiko dute, trikitilariak lagun hartuta, eta gauean, 21:30ak inguruan, bertso afaria izango dute Zubi-Ondo gastronomia elkartean. Puntapuntako bertsolariak gonbidatu dituzte afari-tara: Andoni Egaña Euskal Herriko txapeldun ohia eta Fredi Paya. Hala ere, eta iazko esperientzia kontuan hartuta, ziur Danobateko langileek ere lagunduko dietela kantuan.

Denbora-pasak euskaraz

Bestalde, Elgoibar Ikastolako, Herri Eskolako, Ispasterko eskolako eta Danobateko bazkideen seme-alabentzako denbora-pasen orria ere prestatu dute, euskara ez dela esparru jakin batera mugatu behar gogorazteko. Danobatek diseinatu du orria, baina



hiru ikastetxeetako hezitzaileen oniritzia jaso du. 6 eta 12 urte bitarteko haurrentzako denbora-pasak dira, lau-bost ariketakoak. Martitzenean batuko dituzte lan guztiak, eta parte hartu duten guztien artean hiru bizikleta zozketatuko dituzte eguaztenean, abenduaren 1ean.

Era berean, Euskararen Nazioarteko Egunean enpresak ohartarazpen bana bidaliko die langile guztiei, euskararen eguna dela gogorarazteko, eta beste hainbat ekintza ere izango direla aurreratu dute.

Abenduaren 2an hasita, hiru film eskainiko ditu Ongarri zineklubak urtea amaitu bitartean



Abenduan hiru film eskainiko ditu Ongarri zine-klubak. Hasteko, eta Euskararen Nazioarteko Egunarekin bat eginez, *80 egunean* ikusteko aukera izango da abenduaren 2an. Jose

Mari Goenagak eta Jon Garañok zuzendutako euskarazko filma da *80 egunean*, eta adinean aurrera doazen bi emakumeren arteko maitasunezko sentimenduak azaltzen ditu.

Abenduaren 9an, berriz, Sevastian Silvaren *La Nana* emango dute. Dirudunen familia batentzako umezain lanak betetzen dituen neska baten gorabeherak kontatzen ditu. Azkenik, hilaren 16an, *El último verano de la boyita* ikusteko aukera izango da, Julia Solomonoffek zuzendutako film argentinarra.

Fernalia taldearen kontzertua gaur, Sotoko Hotsak jaialdian

Tzesne & Paralux eta Osoko Bilkura taldeen kontertuen ostean, Fernalia taldearen txanda izango da gaur, Sotoko Hotsak jaialdiaren barruan. Bi lagunek osatzen dute taldea. Jatorri industrialaren duen taldea da berez, baina hala ere, Fernaliak ez dio uko egiten melodiari. 22:30ean izango da kontzertua, Kultur Etxeko sotoan. Sarrerak hiru euro balio ditu.

Ipuin kontalaria, egunean

Oihana Etxegibel ipuin kontalaria saioa izango da datorren ostegunean, abenduaren 2an, Gotzon Garate udal liburutegian.

Gure Bide elkarte gastronomikoaren 50 urteko historiari buruzko liburua aurkeztu dute

Liburuaren egile eta babesleez gain, hainbat txirrindulari ere izan ziren ekitaldian

Gure Bide elkarte gastronomikoak joan zen barixakuan aurkeztu zuen 50 urteko historia baten duen liburua. Udaletxeko pleno aretoan egin zuten aurkezpen ekitaldia, eta liburuaren egileekin eta babesleekin batera, Etxaniz Memorialean parte hartu izan duten hainbat txirrindulari ere izan ziren: Txomin Perurena, Ramon Murillo, Alberto Leanizbarrutia, Unai Osa, Aitor Hernandez, Jokin Mujika, Amets Txurruka, Beñat Urain eta Iñigo Lariz. Txirrindulari bakoitzak Etxaniz Memorialarekin izandako harremana kontatu zuen, Arritxu Iribar Euskadi Irratiko kazetariak gidatuta.

Laurentzi Gorostiza eta Koldo Lizarralde idatzi dute liburua. Lehenengo zatian elkarte gastronomikoari buruzko informazioa batu dute, eta bigarren zatia Etxaniz Memorialari eskaini diote. Liburuaren egileek eskerrak eman zizkieten liburua babestu dutenei, eta baita liburua idazteko laguntza eskaini dieten bazkideei ere.



1959an sortutako elkarte

Gure Bide elkarte 1959an sortu zuten Umore Ona eta Beti Egarri koadrilek. Txirrindularitzarako zaletasunak batzen zituen bi koadrilak, eta horren inguruan biltzeko leku baten beharrak

bultzatu zituen elkarte sortzera. Urte berean ekin zioten Etxaniz Memorialeko antolatzeari, eta ordutik hutsik egin gabe jokatu izan da proba hori, abuztuaren 23an, San Bartolome bezperan, alegia.

XVI. Kontzezio Azoka Mendaron 2010eko abenduaren 4an



9:30ean **HASIERA**
Sahieski erre pintxoak sagardoarekin dastatzeko aukera

12:00etan **TRIKITIXA DANTZA TALDEAREN KALEJIRA**

12:30ean **HERRI KIROL JAIALDIA**
Aizkolarien arteko eronka
Floran Nazabal - Pasi Larretxea / Donain Larretxea - Eneko Erpeleta
Aizkolari txikia
Hodei Erpeleta
Harrijasotze erakustaldia
Idoia Etxeberria



13:30ean **SARI BANAKETAK**
Baserritar jantzi dotoreenak, baso txukunenari eta erosketak zozketa

18:00etan **IDÍ DEMA** Garagartzan
Elgoibarko Soarte baserriko eta Eibarko Areta baserriko idiekin

Kontzezio Eguna abenduak 8

Garagartzako elizan
13:30ean Meza Nagusia
eta ondoren

**KEZKA
DANTZA TALDEAREN
emanaldia**



Badator berriz ere koadrilen arteko Gabonetako torneooa

Abenduaren 20ra arte egongo da izena emateko epea

Egoibarko Xake Taldeak koadrilen arteko Gabonetako torneooa berreskuratu nahi du aurtengo Gabonetarako. 16 urtetik gorakoek hartu ahal izango dute parte, eta koadrila bakoitzak bost modalitatetan lehiatu beharko du: txirrindularitza, korrika, sokatira, areto futbola eta mus karta jokoa. Kirol bakoitzeko irabazleak garaikurra jasoko du, eta txapelketako talde irabazleak paint ball saioa eta koadrila guztiarentzako afaria eskuratuko ditu.

Torneoa jokatu ahal izateko hamabi taldek eman beharko dute izena gutxienez, eta koadrila bakoitzak 90 euro ordaindu beharko ditu. Interesatuak Olaizaga kiroldegian eman dezakete izena, abenduaren 20a baino lehen.

Egin beharrekoak

- ⌚ **Txirrindularitza:** Hiru pertsona talde bakoitzeko. Tren geltokitik Erretxindira.
- ⌚ **Korrika:** Talde bakoitzeko bost lagun egingo dute, erreleboka. Plaza Handitik hasita, San Bartolome kalea, Pedro Migel Urruzuno, King Kong, Errosario kalea, Plaza Handia.
- ⌚ **Sokatira:** Zortzi lagun talde bakoitzetik. Plaza Handian.
- ⌚ **Areto futbola:** Bost lagunek osatuko dute taldea.
- ⌚ **Mus:** Talde bakoitzeko bi lagun.

Atzera begira

Koadrilen arteko Gabonetako torneooa 1999an egin zen azkenekoz. 1991n sortu zuten, eta hasierako urteetan sekulako arrakasta izan zuen: estreinako aldian hamasei taldek hartu zuten parte. Orduan, sei kiroletan lehiatzen ziren parte hartzaileak: igeriketa, tenisa, areto futbola, saskibaloia, pala eta krosa. Hirugarren edizioan, ordea, tenisa eta igeriketa kendu eta bizikletan Erretxindiraino egin beharreko taldekako erlojuz kontrakoa sartu zuten. Gabonak eta kirola uztartzea lortu zuen torneoak, eta urterik one-



1998an, txirrindularitza proba hasteko prest.

nean 32 taldek parte hartu zuten. Guztira, 400 lagun inguruk jardun zuten parte hartzen, eta ikusle kopurua ere handia izaten zen Olaizaga kiroldegiko hamailetan.

Azken edizioetan, baina, behera egin

zuten partehartzeak. 1999. urtean bederatzi talde bakarrik lehiatu ziren Gabonetako torneoan, eta 2000. urteko edizioan bost talde besterik aurkeztu ez zirenez, bertan behera lagatzea erabaki zuten antolatzaileek.



Korrika erreleboen hasieran ateratako argazkia, 1998an.

Alkortako Igoera jokatuko da bihar, hilak 27, Mendaron

10:30ean irtengo dira antxixikariak udaletxe paretik

Bihar jokatuko da Alkortako Igoera. Mendaroko ezker abertzaleak antolatzen du lasterketa hau, eta aurtengoa bosgarren edizioa du. Lasterkariak 4,7 kilometroko ibilbidea osatu behar izaten dute, udaletxe paretik irten eta Alkortako gaineraino, eta hiru sari izaten dira: garaikurra eta txapela irabazlearentzako, eta garaikur bana hurrengo bi sailkatuentzako. 10:30ean abiatuko dira lasterkariak udaletxeko plazatik, eta izenemateak egunean bertan egingo dira, proba hasi baino orduerdi aurretik. Lasterketa amaitzen denean, berriz, hamaiketa-

koa eskainiko dute Alkortan, igotzen diren guztientzako.

Joseba Plaza markinarrak dauka errekorra

luz 24 lagunek parte hartu zuten, eta Iñigo Lazkano mendaroarrak irabazi zuen (21:07ko denbora). Lazkanok, hamaika segundoko aldea atera zion bigarren sailkatuari, Joseba Plaza markinarrari. Hirugarren, berriz, Joseba Altuna azpeitiarra sailkatu zen (22:35). Errekorra, baina, Joseba Plazarena da, 2009ko edizioako irabazlearena: 20:43.

Sanloren laguntzaile egiteko aukera izango da bihar

Sanlo eskubaloi taldearen laguntzaile txartela egiteko aukera izango da bihar, Plaza Handian, 11:00etatik 14:00etara. Batzoki azpian jarriko dute mahaia, eta laguntzaile egiten diren guztiek opari bana jasoko dutela aurreratu dute Klube-ko arduradunek. Bestalde, 12:00etan, Klube-ko jokalariek guztien argazkia aterako dute plazan; 200 laguneko familia argazkia izango da. Era berean, eskubaloi taldearen gaineko argazki erakusketa ere osatuko dute. Ikusgai jarriko dituzten argazkietako batzuk 1970eko eta 80ko hamarkadetakoak dira, kluba bera sortu aurrekoak. Nolanahi ere, antolatzaileek herritarren laguntza eskatu dute, eta norbaitek eskubaloi taldearen argazkiren bat balu erakusketara eramateko eskatu die.

Joseba Azpirik irabazi du Euskadiko Ehiza Xehetxe Txapelketa, gazteetan

Joseba Azpiri 16 urteko elgoibartarrak irabazi du Euskadiko Ehiza Xehetxe txapelketa, jubeniletan. Zanbranan jokatu zen txapelketa joan zen asteburuan, eta Azpiri nagusitu zen, lau eper eta oilagor bat botata. Jubeniletan irabazteaz gain, sailkapen nagusian laugarren egin zuen elgoibartarrak. Irailean, Gipuzkoako txapelketa irabazita sailkatu zen Euskadiko txapelketarako.



EMAITZAK

FUTBOLA

Gernika 1 – Haundi 1 (3. maila)
Elgoibar 1 – Aretxabaleta 1 (Regional preferentea)
Elgoibar 3 – Amaiak bat 2 (Ohorezko jubenilak)
Elgoibar 0 – Eibar 8 (Kadeteak B)
Elgoibar 2 – Zarautz 5 (Ohorezko infantilak)
Kotkas 1 – Elgoibar 4 (Infantil txiki)
Elgoibar 2 – Lagun Onak 6 (Alebinak)

ESKU PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa
Beloki 22 – Lagunak 21 (1. mailako nagusiak)
Hernani 22 – Lagunak 9 (1. mailako nagusiak)
Lagunak 22 – Zestoa 13 (3. mailako nagusiak)
Aurrera Saiaz 22 – Lagunak 21 (1. mailako jub.)
Palaz
Lagunak 25 – Añorga 6 (3. mailako nagusiak)

ARETO FUTBOLA

Concepto Createch 3 – Zarautz 2 (1. maila)
Orixe Tolosa 5 – Cafeteria King Kong 10 (jubenilak)

ESKUBALOI

Donibane Majestic 29 – Alkorta 35 (Sen. mut.)
Bergara 24 – Beristain Banaketa 33 (Jub. mut.)
La Bacaladera 25 – Txarriduna 43 (Kad. mut.)
Ereintza 17 – IMH 23 (Kad. nes)
Bankoa 43 – Arrate C 13 (Inf. mut.)
Aterpe 18 – Pakita Altzariak Aloña 32 (Inf. mut.)
Federopticos Ikus 23 – Arrate Amaña 4 (Inf. nes.)
Aiala 12 – Astigarraga Etxea 21 (Inf. nes.)
Tecnifuelle 23 – Kukullaga Etxebarri 23 (Inf. nes.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Domeka, 28
9:45 King Kong – Aldapeta (Jubenilak, mutilak)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 27
12:30 Elgoibar – Hondarribia (Infantil txiki)
16:30 Haundi-Zalla (3. maila)
18:45 Elgoibar – Zarautz (Ohorezko jubenilak)
Domeka, 28
10:00 Futbol eskola

ESKUBALOI (Kiroldegian)

Zapatua, 27
9:00 C. Astigarraga – Aiala Zarautz (Inf. nes.)
10:15 IMH – Egia (Kadete nes.)
16:00 Lauko – Errotaberri (Kadete nes.)
17:30 G.Eibar – Errotaberri (Jubenil nes.)
19:00 Alcorta – Ereintza (Senior mutilak)
Domeka, 28
11:00 Txarriduna – Pulpo (Kadete mutilak)
12:30 Beristain – Katilu (Jubenil mutilak)

PILOTA

Barxakua, 26
21:15 Lagunak- Hernani (1. mailako nagusiak)
21:45 Lagunak-Beloki (1. mailako jaisierak)
22:20 Lagunak-Altzatarak (PALA)

LANA

ESKAERA

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Arratsaldez edo orduka. ☎ **618 057 967**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo tabernan lan egiteko. Asteburuetan edo orduka. ☎ **696 246 962**
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. ☎ **699 619 447 / 943 743 730**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Asteburuetan ere bai. ☎ **618 163 061**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Arratsaldez eta asteburuetan. ☎ **646 821 678**
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Orduka. ☎ **648 603 029**
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Edozein ordutan. ☎ **678 972 690**

- Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo umeak edo nagusiak zaintzeko. ☎ **673 875 123**

ESKAITZA

- Asteburuetarako zerbitzaria behar da. Euskaraz jakitea baloratuko da. ☎ **669 977 225**
- Zerbitzaria eta sukaldari laguntzailea behar dira. ☎ **943 743 196**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **651 663 642**
- Etxea salgai. Hiru logela, sukaldea, komuna eta egongela. Berritua eta oso egoera onean. Prezio interesgarria. ☎ **688 658 183**
- Etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **606 612 834**
- Benidorm-en apartamentua alokatzen da. Erdigunean, eroso. ☎ **943 740 628**

AUTOAK ETA GARAJEAK

- Garaje itxia alokatzen da San Roken, Telefonica pareran. ☎ **943 742 931 / 660 937 529**
- Autoa salgai. Opel Astra automatikoa. Bi urte eta erdi ditu. Merke, aukera bikaina. ☎ **619 127 474**

PARTIKULARRAK

- LHko eta DBHko klase partikularrak ematen ditut, etxeetan. Elgoibarren eta Mendaron. ☎ **606 257 620**
- Gaztelania eta matematika eskolak emango nituzke. Talde txikiak. Esperientzia daukat. ☎ **943 744 206**

BESTELAKOAK

- 90 zentimetroko bi oheko altzaria salgai. Oso merke. ☎ **943 743 975 (Arrate) / 645 599 810 (Mireia)**



FEMTOSEGUNDOKO LASERRA

Plaza Barria, 2 - 2º - EIBAR - Tfnoa.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

BARRENen aldeko BONOAK erosteko:

- **BARREN astekarian (Nafarroa plaza)**
- **Elgoibarko Izarran (Ubitarte 4)**
- **Telefonoz: 943 741 626**
- **E-postaz: elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com**
- **Pitxintxun**
- **Mendaroko Morroskillo dendan**

[Bonoa erosten duten guztien artean, Belaustegi jatetxean bi lagunentzako dastatze-menua zozketatuko dugu]

BARRENen aldeko bonoak saltzeko prest al zaude? Deitu edo idatzi Elgoibarko Izarrara eta benetan estimatuko dizugu. Eskerrik asko!

Ni ere banaiz BARREN!







• Zorionak, **Izaro**, asteartean 6 urte egin zenituelako. Etxekoen partez.




• Zorionak, **Irati**, 4 urte bete dituzulako. Aita, ama eta bereziki, Maialenen partez.



• Zorionak, **Asier**, 9 urte egin dituzulako. Muxu asko, Alexen, gurasoen eta aiton-amonen partez.



• Belarritik tiratzean zorionak eta muxu bat zuretza-ko, **Alain!** Bereziki arrebatxo Mariaren partez.



• Zorionak, **Mikel**, domekan urtebete egingo duzulako. Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Malen** igandean 5 urte egingo dituzulako. Familiakoen eta bereziki, Anderren partez.



• Zorionak, **Jone**, asteartean 7 urte egin zenituelako. Etxekoen partez.



• Zorionak, **Nerea**, asteartean 2 urte egin zenituelako. Patxo handi bat!



• Zorionak, **Oxel**, asteartean 4 urte bete zenituelako. Etxekoen partez.



• Zorionak, **Ibai**, zure laugarren urtebetetzean. Oso ondo pasa! Etxekoen, eta bereziki, Leireren partez.



• Zorionak, **potoki!** 3 urte! Milaka muxu, Haizea, Intza eta Malenen partez.



• Urte bat egin duzu, **Nora!** Zorionak!! Patxo potolo pila, bereziki, Izarren partez.



• Zorionak, **Nora eta Koldo**, zuen egunean. Familiakoen eta bereziki, Ibonen partez.



• Zorionak, **Zuhaitz eta Sare** zuen urtebetetzeagatik. Muxu bana.



• Zorionak bikote, zuen zilarrezko ezteingatik. Guk ere gustura ospatuko dugu. Etxekoen partez.

OSPAKIZUNAK KINTOAK



Azaroaren 20an bazkaria egin genuen 67ko kintokoeak, Sigma jatetxean. Egun zoragarria pasatu genuen elkartu ginenok: 50 lagun guztira. Antolatzaileen partez, eskerrik asko etorri zineten guztioi, eta ea hurrengoan gehiago elkartzen garen.

• Zorionak, **Agurtzane**, asko maite zaituen Rosa lagunaren partez. Egun ona pasa!

Erretratu bakarreko agurra: 2 euro.

Argazki bikoitza: 3 euro.

Hirukoitza: 5 euro.

**Hiru lagunetik gorako taldeak:
10 euro.**

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu.

BARRENeke bulegora 12:00ak baino lehen, edobarren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

Urrian...

JAIOTAKOAK



Irati Iranzo Gonzalez
Urriak 6
Antton eta Susana




Jairo Caro Garcia
Urriak 6
Vicente eta Alejandra



Elene Gurrutxaga Perez
Irailak 27
Gotzon eta Raquel



Goiuri Marcos Etxeberria
Urriak 15
Roberto eta Miren



Markel Ortiz Etxeberria
Urriak 21
Berex eta Maite



Ugaitz Rodriguez Saez
Urriak 13
Javier eta Nekane

Julen Jausoro Arriola
Urriak 8
Iker eta Olatz

Leire Fernandez Arakis-tain
Urriak 2
Alberto eta Idoia

Naia Arosa Sasiain
Urriak 22
Zigor eta Mari

EZKONDUTAKOAK

- Asier De La Maza eta Ane Miren Barandela Urriak 2
- Andres Alkiza eta Sonia Rodriguez Urriak 2
- Aitor Romera eta Maider Lete Urriak 16
- Manuel Suarez eta Emma Bejarano Urriak 26
- El Fadel El Boukri eta Fatima Kichouh Urriak 29

Jaiotakoen atalean zure seme-alabaren erretratua jarri nahi baduzu, hilabeteko lehenengo astelgehenerako ekarri behar duzu erretratua **BARRE**neko erredakziora edo barren@elgoibarkoizarra.com helbidera bidali. Jaiotakoen argazkia jartzeagatik **2 euro** kobratzen dugu.

HILDAKOAK

- Maria Teresa Arrillaga Garate • 82 urte • Urriak 1
- Eladio Pazos Martinez • 72 urte • Urriak 8
- Ramon Yague Sanz • 83 urte • Urriak 10
- Gregorio Gurrutxaga Garate • 87 urte • Urriak 17
- Casilda Criado Sanchez • 87 urte • Urriak 17
- Milagros Etxeandia Zabala • 79 urte • Urriak 19
- Pakita Ibarria Urzelai • 81 urte • Urriak 20
- Francisco Garcia Fernandez • 61 urte • Urriak 21
- Donato Arrizabalaga Igarateburu • 68 urte • Urriak 21
- Angelita Altzibar Uribarren • 83 urte • Urriak 29
- Primitivo Garcia Garcia • 87 urte • Urriak 29

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak**

**Erietxe
zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 / (Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekoa) 635 756 295

PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilon, 2 - 3. sotoa 943 74 35 52 - 74 27 88
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

CORDON VILARCHAO
DEKORAZIOA
Kanpo eta barneko estaldura
Zolak erortzea
Lantutua: egur, aluminio, PVC
Pintura orokorra
San Roke, 7 behea
Pel. Glaso - Glaso kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa
Tel. 943 749 570

OKINDEGIA

28 domeka EIZAGIRRE

FARMAZIAK

- 24 ORDUZ
- 26 Ibañez
- 27 Garitaonandia-Bidasolo
- 28 Garitaonandia-Bidasolo
- 29 Etxeberria (Santa Ana)
- 30 Zabaleta
- 1 Yudego
- 2 Zabaleta
- 3 Etxeberria (Errosario)

Ibañez
Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638

Fernandez
Herriko enparantza 4,
Garagartza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta
Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

**INFORMAZIO
GEHIAGO:**



Egin klik
www.elgoiBARREN.net

26 barixakua

Musika
19:00 Kale Kantariak
Entseguia egingo dute, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Musika
22:30 Sotoko Hotsak
Sinuose taldeak antolatuta, Fernalia taldeak kontzertua eskainiko du kultur etxeko sotoan.

27 zapatua

Feria
10:00 Kontsumo iraunkoraren eta arduratsuaren feria
Ohiko barazki postuez eta ganadu feriaz gain, jantzien, jostailuen eta liburuen postuak ere jarriko dituzte. Nafarroa Plazan eta Leku Ederren. Trikitilariak arituko dira giroa alaitzen, eta 12:00etan Kale Kantariak irtengo dira.

Kirola
10:30 Alkortako igoera
Mendaron. Herriko Enparantzatik irtengo dira korrikalariak.

Skitaldia
12:00 Argazki kanpaina
Arnaldo Otegiren aldeko erretratu kanpaina parte hartzeko ekitaldia. Plaza Handian eta Kultur Etxe aurrean.

28 domeka

Tailerra
10:00 Familia konstelazioak
Eduardo Ibarria psikologoak eskainiko du. Kemen belardendan. Izena ematea komeni da: 943 744 031.

1 eguaztena

Hiesaren eguna
9:30 Mahai informatiboak
Gurutze Gorriak mahai informatiboak jarriko ditu, hiesari buruzko informazioa emateko.

Eztabaida taldea
15:00 Zaintza diagnostikoa
Berdintasun Sailak eztabaida saioa antolatu du, haurren zainzaileentzako. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Tailerra
17:30 Emakumeen sexualitatea
Haizeak antolatuta, Pedro Muguruzako ikastetxean.

2 eguena

Aisialdia
17:00 Ipuin kontalaria
Oihana Etxegibel ipuin kontalariaren saioa, liburutegian.



LUDOTEKAKO EKINTZAK

Abenduaren 18an familia-irteerak Aditurriko meategia eta San Marko gotorlekua bisitatuko ditugu. Bazkideak eta familikoek 6 euro. Bazkide ez direnek 10 euro. Izen ematea, abenduaren 10era arte. ANIMATU!



GAZTELEKUKO EKINTZAK

GAZTELEKUA TXUKUNTZEN HASIKO GARA!
PINTORE-ARRABOLA HARTU ETA PARETAK MARGOTZERA ANIMATZEN AL ZARA?



«Carancho»
26, barixakua: 22:15
27, zapatua: 22:15
28, domeka: 19:00
29, astelehena: 21:30

«Astroboy»
28, domeka: 16:30

«80 egunean»
(Ongarri)
2, eguena: 21:30

Erretratu zaharra



1945

Aste honetako erretratu zaharra Ane Irisarrik bidali du BARREnera. 1945eko otsailaren 16an aterata dago argazkia, Aita Agirreko eskola publikoetan. Argazkian azaltzen direnak **Juana eta Ana Mari Garcia Alberdi** ahizpak dira. Pozik joaten ziren eskolara, eta irrifartsu ikusten dira mahaian eserita, liburua zabal-zabalik dutela. Urte asko pasa dira ordutik, eta dagoeneko, Juana eta Antonio senarrak urrezko ezteiak ospatu dituzte. Familiakoek besarkada handi bat eman nahi diete.

Jarri ezazu zure publizitatea
gabonetako alean

B

BARREN
astekarian
943 743 704



Pop, rock eta folk doinuak, Danbaka lehiaketako azken aurreko kontzertuan

Danbakako azken-aurreko kontzertua izango da gaurkoa. Ondarroako Xarma, Aramaioko Deabrutu, Eibarko Seafóid eta Aretxabaletako Scam taldeak igoko dira Espaloiko oholtzara.

Ohi bezala, 22:30ean hasiko dira kontzertuak. Sarrerak bost eurotan daude salgai; eta, Gaztekutxan hiru eurotan. **BARRENEN ere baditugu kontzerturako sarrerak, debalde. Zatoz eta eskatu!**

XARMA

Josuah Froufe eta Christian Martin Berrizkoak dira, eta Itsaso eta Jon Kirru, Donostia eta Ondarroakoak. Jon Kirru eta Itsaso 2007an elkartu ziren, eta beste biak 2008an batu zitzaizkien. 2008an Bilbovision lehiaketan hirugarren saria irabazi zuten. Orditik, hainbat lekutan jo dute. Amaraunak diskoa aterra zuten 2009an, rock eta pop estiloko hamabi kantarekin. Gai intimistak landu, eta kritika sozial eta politiko zorrotza egiten dute abestietan.

DEABRUTU

Muturreko bateria saioak eskaintzen ditu Deabrutu taldeak. Iñaki Urizarrek osatzen du taldea. 22 urterekin hasi zen bateria jotzen, eta orditik, hainbat saiakera egin ditu musika talderen bat osatzeko. Lehenengo, Sacre taldea sortu zuten Aramaioko lagunekin. Gero, Bergaran egon zen beste talde batekin, baina beste hark ere ez zuen aurrera egin. Azkenik bateria bakarrik jotzea erabaki zuen; hala, horixe egingo du gaur gaueko saioan ere.

SEAFÓID

Seafóid talde eibartarra 2009an sortu zuten, dagoeneko desagertuta dagoen Filipin Folk taldeko lau kidek. Egun, Iñakik, Jorgek, Victorrek, Pauk eta Johnny Kinnairo irlandarrak osatzen dute taldea. Berehala konturatu ziren harreman ona zutela. Folk, pop eta rock doinuak egiten dituzte, eta ingelesez abesten dute eibartarrek. Adierazi dute Seafóid berbak eromena esan gura duela gaueko.

SCAM

Mikel Cubillok (ahotsak, gitarra) eta Imanol Ramosek (bateria) sortu zuten Scam 2004 urte bukaeran. 2005ean Paulo Casal gitarra jotzailea sartu zen taldean eta 2006an Ander Romero baxujolea. 2007an Musicosamateurs.com lehiaketa nazionalean lehen saria irabazi zuten, Sorprender abestiarekin. Azken bi urteetan kontzertu asko eman dituzte aretxabaletarrek, eta gainera, euren entsegu lokala kontzertu, lan eta grabazio gela bihurtu dute.



BABESLE NAGUSIA



LAGUNTZAILEA



HEDARIDE LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEA



www.danbaka.com

ARNALDO ASKATU

POLITIKA ASKATU



GUK ARNALDO ASKATU DIOGU ETA ZUK?

ATERA ZUK ERE
ARNALDOREN ALDE ARGAZKIA

DATORREN ZAPATUAN, HILAK 27,
PLAZA HANDIAN ETA
KULTUR ETXEAREN AURREAN

EGUERDIKO 12ETATIK 13:30AK ARTE



ARNALDO ASKATU
HERRI EKIMENA